



Irurtzungo Udala
Ayuntamiento de Irurtzun

ORDENANTZA, IRURTZUNGO UDAL ESPARRUAN EUSKARAREN ERABILERA ETA SUSTAPENA ARAUTZEN DITUENA

ZIOEN AZALPENA

Euskara, Irurtzungo hizkuntza, gaztelania bezala, Irurtzungo Udalaren eta udalerriko hizkuntza ofiziala da. Dena dela, euskara eta gaztelania, biak hizkuntza ofizialak izanik ere, oso urrun daude berdintasun sozialean egoteko, euskarak urtetan jasan duen bazterketaren ondorioz. Hortaz, Irurtzungo Udalak tratamendu berezia eta lehentasuna emanen dio euskarari.

Euskarari buruzko 18/1986 Foru Legeak dioenez, euskara eta gaztelania Nafarroako hizkuntzak dira eta, hortaz, herritarrek eskubidea dute haiak ezagutu eta erabiltzeko. Gainera, euskara zein gaztelania erabiltzeko eskubidea aitortzen zaie herritar guztiei administrazio publikoekin dituzten harremanetan.

Foru Lege hori kontuan hartuta eta, Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legean ezarritakoari jarraituz, hurrengo ordenantza onestea erabaki da; beraz, 1997ko maiatzaren 2an onetsi eta 1997ko ekainaren 6an, Nafarroako Aldizkari Ofizialean, argitaratu zena aldatu eta zabaldu da.

I. KAPITULUA

XEDEA

1. artikulua. Euskararen erabilera eta sustapena Udalaren eskumeneko esparru guztietan arautzea du xede ordenantza honek.

2. artikulua. Aipatu xedea betetzeko, ordenantzak berariazko xede hauek ditu:

a) Herritarrei helaraztea euskara integrazioaren zein komunikazioaren elementua dela.

b) Herritarrei bermatzea erabili gogo duten hizkuntza ofizialean kasu eginen zaiela.



Irurtzongo Udala **Ayuntamiento de Irurtzun**

c) Irurtzongo Udalean euskarak idatzita eta mintzatuta izanen duen erabilera zehaztea.

d) Zehaztea zein lanpostutan aritzeko jakin behar den euskaraz nahitaez eta lanpostu horien hizkuntza eskakizunak.

e) Ordenantzaren xedearekin lotura duten euskara sustatzeko bestelako jarduerak bultzatzea.

II. KAPITULUA

APLIKAZIO EREMUA

3. artikulua. Ordenantza hau Irurtzongo udal mugapean eta Irurtzongo Udalean aplikatuko da.

4. artikulua. Edozein kudeaketa molde dela medio hirugarrenek ematen dituzten Udalaren eskumeneko zerbitzuetan, ordenantza honen XIV. kapitulua aplikatuko da.

III. KAPITULUA

ZERBITZUKO HIZKUNTZAK

5. artikulua. Euskaraz eta gaztelaniaz emanen zaie zerbitzua herritarrei Irurtzongo Udalaren eremu eta bulego guztietan. Bi hizkuntzen erabilera bermatuko da herritarrek Udalarekin duten harreman guztietan, zein hizkuntza hautatzen duten, hartan.

6. artikulua. Euskaraz dakiten Irurtzongo Udaleko langileek euskaraz eginen diete lehen hitza herritarrei eta, herritarrek zein hautatzen duten, hartan jarraituko dute.

7. artikulua. Euskaraz ez dakien langileren batek hizkuntza horretan hurbildu zaion edo hizkuntza horretan egin nahi duen norbaiti kasu egin behar dionean, inguruko langile elebidunen laguntza bilatuko du.

8. artikulua. Betiere, Irurtzongo Udaleko langileek ezin diete herritarrei eskatu hizkuntza batean edo bestean egiteko. Guztiz bestela, herritarrak hautatzen duen hizkuntzan emanen da zerbitzua.



Irurtzongo Udala **Ayuntamiento de Irurtzun**

9. artikulua. Herritarren artean euskararen erabilera sustatzeko, behar bezala adieraziko da zein langilek menderatzen duten euskara, eta hizkuntza horren erabilera bultzatuko da.

10. artikulua. Hartzaile jakinik gabeko ahozko mezuak (hau da, erantzungailu automatikoz egindakoak, telefono bidezko informazio zerbitzuak, bozgorailu bidezkoak eta antzekoak) euskaraz eta gaztelaniaz eginen dira, ordena horretan.

11. artikulua. Irurtzongo Udalean erabiliko diren inprimakiak euskaraz eta gaztelaniaz egonen dira, eta lehentasuna emanen zaio euskarazkoari (elebitasun normalizatzailea), bi hizkuntza ofizialetako edozeinetan betetzeko aukera eskainiz.

12. artikulua. Erabilera publikoko gainerako dokumentu estandarizatuak euskaraz eta gaztelaniaz egonen dira (elebitasun normalizatzailea).

13. artikulua. Hartzaile jakinik gabeko dokumentu administratiboak euskaraz eta gaztelaniaz egonen dira (elebitasun normalizatzailea).

14. artikulua. Letraren tamainari dagokionez, %60koa izanen da euskaraz adierazitako testuarena, eta %40koa gaztelaniazkoarena. Testua ezin denean bi tamaina desberdinetan eman, euskarazko testuak hedadura handiagoa izanen du. Bi hizkuntza ofizialak orrialde berean, bi zutabetan, erabiltzea aukeratuz gero, euskarazko testua ezker aldeko zutabean egonen da, eta gaztelaniazkoa eskuinekoan. Testua goitik behera antolatuz gero, goialdea euskaraz etorriko da.

15. artikulua. Herritarrak edo entitate hartzaileak hizkuntza horren aldeko hautua adierazi badu, edo euskaraz aurkeztutako idazki bati erantzuten zaionean, euskara bakarrik erabiliko da.

16. artikulua. Irurtzongo Udalak, Sakanako Mankomunitatearekin batean, kanpainak diseinatuko ditu jendeak eta entitateek zerbitzuak euskaraz antola ditzaten.

IV. KAPITULUA

LANEKO HIZKUNTZAK

17. artikulua. Dokumentuaren ezaugarriak eta zer hedakuntza izan dezakeen ikusita idatzi eta tramitatuko da dokumentua hizkuntza batean edo bestean.



Irurtzungo Udala **Ayuntamiento de Irurtzun**

18. artikulua. Zein hizkuntza ofizialetan egiten duten bilera Udalaren Gobernu Batzordeak eta informazio organoek, hizkuntza hartan idatziko dira bileretako akten testuak, baita osoko bilkuretakoak ere. Betiere, Gobernu Batzordearen edo Osoko Bilkuraren erabakiak euskaraz ere idatziko dira, bilera gaztelaniaz egin bada ere.

19. artikulua. Udalaren organo guztiek, informaziokoak zein betearazleak izan, euskara hautatzeko eskubidea dute laneko ohiko hizkuntza gisa. Organo horien akta, gutun, jakinarazpen eta dokumentu guztiak euskaraz idatziko dira; behar denean, gaztelaniara itzuliko dira.

20. artikulua. Udalaren organo informatibo eta betearazleen bileretarako deialdi guztiak bi hizkuntza ofizialetan prestatuko dira, laneko ohiko hizkuntza gisa euskara aukeratu duten organoenak izan ezik; izan ere, horiek euskara hutsean egonen dira eta eskatzen duten kideei bakarrik igorriko zaie itzulpena.

21. artikulua. Lanpostuari nahitaez esleitutako hizkuntza eskakizuna betetzen dutela frogatzen duten langileei gaitasuna aitortzen zaie lana bi hizkuntza ofizialetako edozeinetan jarduteko, zerbitzuko beharren arabera.

V. KAPITULUA

ADMINISTRAZIOARTEKO HARREMANAK

22. artikulua. Irurtzungo Udalak beste administrazio publikoei igortzen dizkien dokumentu, jakinarazpen eta komunikazioak bi hizkuntzetan egonen dira (elebitasun normalizatzailea).

23. artikulua. Beste administrazio publikoek igorritako idazkiei erantzuteko, arau gisa, jatorriko idazkiaren hizkuntza erabiliko da. Dokumentu hori bi hizkuntza ofizialetan idatzita bada, erantzuna ere bi hizkuntza ofizialetan emanen da (elebitasun normalizatzailea).

24. artikulua. Irurtzungo Udalarekin hizkuntza ofizialetako batean harremanak izateko borondatea adierazi duten administrazio publikoei hizkuntza horretan bakarrik idatziz igorriko zaizkie idazkiak.

25. artikulua. Irurtzungo Udalak administrazio publikoei eskatuko die haietatik hartzen duen edozein dokumentu elebiduna izan dadila.



Irurtzungo Udala **Ayuntamiento de Irurtzun**

VI. KAPITULUA

LANGILERIA

26. artikulua. Irurtzungo Udalak, plantilla organikoa prestatzeko orduan, bertan ezarriko du zein lanpostutan den beharrezkoa euskaraz jakitea. Orobat, lanpostu horien hizkuntza eskakizuna zehaztuko da plantilla organikoan.

27. artikulua. Euskaraz jakitearen betebeharra eta hizkuntza eskakizuna zehazteko, faktore hauek hartuko dira kontuan:

- a) Lanpostua beteko duenak zer nolako lanak egin beharko dituen.
- b) Antolamenduaren zer nolako unitatetan kokatzen den lanpostua.
- c) Zenbaterainoko harremana izan behar den herritarrekin, ahoz eta idatzita.

28. artikulua. Bi modu onartzen dira hizkuntza eskakizunak frogatzeko: hizkuntza eskola ofizialaren gaitasun agiria edo antzekoa aurkeztuta; bestela, proba bat eginez. Ordenantza honetako I. eranskinean ezarritako jakintza mailen arabera frogatuko da.

29. artikulua. Udaleko langile izateko oposizio, lehiaketa eta barne igoeretan, zehatz-mehatz beteko da hizkuntza eskakizunei dagokiena, indarra duen legerian eta ordenantza honetan ezarritakoaren arabera.

30. artikulua. Irurtzungo Udalak jarraipena egingen die hizkuntza eskakizunei, lanpostuen eginkizunak garatzeko behar diren hizkuntza trebetasunak zenbateraino egokitzen diren aztertuta eta, behar izanez gero, aldatuta.

31. artikulua. Euskaraz ikasten lagunduko zaie Udaleko langileei, ordenantza honetan ezarritako helburuak bete daitezen. Hortaz, Irurtzungo Udalak, Sakanako Mankomunitatearekin batean, hizkuntza prestakuntzako planak antolatuko ditu helburu horiek betetzeko. Haietan lanaldiaren murrizketak aurreikusiko dira, laguntza ekonomikoak eta ordezkapenak, Nafarroako Gobernuak ezarritako esparruaren barrenean.

32. artikulua. Orobat, aurrerago kontratatzen diren langileek behar bezala gaituta egon beharko dute beren eginkizunak euskaraz zein gaztelaniaz burutzeko, betetzen dituzten lanpostuen hizkuntza eskakizunaren arabera.

33. artikulua. Irurtzungo Udalaren menpeko edo hark sortutako sozietate edo erakunde publikoen zerbitzuko langileei Irurtzungo Udalaren zerbitzuan



Irurtzongo Udala **Ayuntamiento de Irurtzun**

zuzenean diharduteneen hizkuntza araudi bera aplikatuko zaie. Irurtzongo Udalaren menpeko sozietate eta erakundeen zerbitzuko langile guztiek beren lana egiteko jakin behar duten euskara frogatuko dute eta, behar izanez gero, zerbitzua euskaraz ematekoa adinako.

VII. KAPITULUA

HIZKUNTZA PLANGINTZA

34. artikulua. Udaleko langile guztiek eta Irurtzongo Udalaren menpeko edo hark sortutako sozietate edo erakunde publikoen zerbitzuko langileek euskaraz lan egin eta zerbitzua emateko gauza izan daitezen, eta udal administrazioaren zerbitzuko langile guztiek lanpostuko eginkizunak betetzeko behar den euskararen ezagutza froga dezaten, plangintza abiatu edo egokituko da.

VIII. KAPITULUA

ERREGISTROA

35. artikulua. Irurtzongo Udalaren erregistro administratiboetan, zer hizkuntzatan aurkezten diren dokumentuak, haietan eginen da inskripzioa.

36. artikulua. Zein den ere inskribatzeko erabiltzen den hizkuntza, itzuli eginen da horren beharra dagoen aldiro, erregistroa kontsultatu nahi dutenen hizkuntza eskubideak babestearren.

IX. KAPITULUA

INFORMATIKAKO TRESNA ETA APLIKAZIOAK

37. artikulua. Euskarazko bertsioa duten informatikako programa komertzialetan eta erabilera orokorrekoetan, bertsio hori instalatuko zaie haiek erabiltzeko adinako euskara maila duten langile guztiei.

38. artikulua. Irurtzongo Udalaren zerbitzuetan propio erabiltzeko sortutako programa edo tresna informatikoak prest egonen dira bi hizkuntza ofizialetan erabili ahal izateko.



Irurtzongo Udala **Ayuntamiento de Irurtzun**

X. KAPITULUA

KANPO IRUDIA

39. artikulua. Irurtzongo Udalak euskara eta gaztelania erabiliko ditu (elebitasun normalizatzailea baliatuko du, hau da, euskara lehenesten duen elebitasuna) herritar guztiei zuzentzen zaienean.

40. artikulua. Horrela, ele bitan izanen dira (elebitasun normalizatzailea), euskarri tradizionaletan zein teknologia berrien bitartez, ondoko hauek:

a) Bandoak, ediktuak, kartelak eta informazio plakak.

b) Zigiluak, tanpoiak, logotipoak, idazpuruak eta antzeko elementuak.

41. artikulua. Irurtzongo Udalaren gela, bulego edo lokal guztietako kanpoko zein barreneko errotulazioa, oro har, euskaraz eta gaztelaniaz egonen da (elebitasun normalizatzailea).

42. artikulua. Euskaraz ez dakiten herritarren eskubideak galarazi gabe, errotuluen testua euskaraz bakarrik izanen da kasu hauetan:

a) Testuaren grafia antzekoa denean euskaraz eta gaztelaniaz.

b) Mezuak esanahia argi eta garbi erakusten duen piktograma lagun duenean.

c) Helarazi beharreko jardueraren ezaugarriek eta hartzailearen berezitasunek hartara behartzen dutenean.

43. artikulua. Irurtzongo Alkatetzak, Udalaren barreneko zein kanpoko ordezkariak izendatzeko orduan (batzordeetako buruak, mankomunitate, erakunde, sozietate edo bestelako organoetako ordezkariak), kontuan hartuko du euskaraz dakiten edo ez.

XI. KAPITULUA

IRAGARKIAK ETA PUBLIZITATEA

44. artikulua. Irurtzongo Udalaren iragarki ofizialak eta gainontzeko publizitatea bi hizkuntza ofizialetan eginen da, eta euskarak lehentasuna izanen du (elebitasun normalizatzailea).



Irurtzongo Udala **Ayuntamiento de Irurtzun**

45. artikulua. Irurtzongo Udalaren publizitate kanpainak eta antzekoak euskaraz sortuko dira, ez daitezten euskarazko itzulpen hutsean gelditu.

46. artikulua. Iragarkiak euskaraz bakarrik aterako dira euskarazko hedabideetan.

XII. KAPITULUA

ARGITALPENAK

47. artikulua. Bi hizkuntza ofizialak erabiliko dira gidetan, aldizkako argitalpenetan, katalogoetan eta hedabideen gainerako argitalpenetan. Argitalpenek, gutxienez ere, pareko tratamendua emanen diete bi hizkuntza ofizialei.

XIII. KAPITULUA

INTERNET

48. artikulua. Irurtzongo Udalaren web edukietan sartzeko, euskarazko orrialdetik eginen da, eta bertan egonen da, egokia bada, gaztelaniazko zein beste hizkuntza batzuetako orrialderako esteka.

49. artikulua. Internetetik eskuratzen diren Irurtzongo Udalaren ardurapeko edukiak, arau orokor gisa, euskaraz eta gaztelaniaz kontsultatzen ahal dira.

50. artikulua. Tramiteak Internet baliatuz egiten ahal diren kasuetan, euskarazko zein gaztelaniazko bertsioak egonen dira.

XIV. KAPITULUA

DIRU-LAGUNTZAK

51. artikulua. Udalaren diru-laguntzaren bat hartzen duten sozietate eta entitateek zein pertsona fisikoek edo juridikoek nahitaez idatzi eta aditzera emanen dituzte euskaraz, edo euskaraz eta gaztelaniaz, diruz lagunduta duten jarduerari lotutako idazki, iragarki, ohar eta gainerako komunikazioak. Modu berean jokatu beharko dute propagandarekin, ahozkoa edo idatzia, hau da, euskaraz edo euskaraz eta gaztelaniaz.



Irurtzungo Udala **Ayuntamiento de Irurtzun**

52. artikulua. Halaber, Udalaren instalazioak edo materiala erabiltzeko, aipatu baldintzak bete beharko dira. Udalak, beraz, pilotalekua, hesiak, oholtzak eta Udalaren beste edozein instalazio edo material erabiltzeko baimena emateko orduan, hizkuntzaren baldintza hori jakinaraziko die interesdunei eta, fidantza itzuli aurretik, baldintza hori ere bete ote den aztertuko du.

53. artikulua. Artikulu honetan ezarritakoa betetzearren, Udalak, Sakanako Mankomunitatearen bitartez, dohainik eskainiko ditu bere Euskara Zerbitzuko aholku eta itzulpen zerbitzuak, eta hala jakinaraziko die interesdunei.

54. artikulua. Ordenantza honek ezarritako helburuak bete daitezen, euskara sustatzeko jardueren antolakuntza bultzatuko da, eta diruz lagunduko zaie jarduera horiek bultzaten dituzten Irurtzungo elkarte eta taldeei.

XV. KAPITULUA

KONTRATAZIO ADMINISTRATIBOA

55. artikulua. Kontratu bidez ematen diren jarduera eta zerbitzuak Irurtzungo Udalak berak egindakoen baldintza beretan emateko eskubidea onartzen zaie herritarrei.

56. artikulua. Kontratazioen klausula administratibo partikularren agiriak eta baldintza teknikoenak bi hizkuntza ofizialetan prestatu beharko dira.

57. artikulua. Kontratazioaren xedeko zerbitzuak zuzeneko harremana dakarrenean herritarrekin, baldintza hauek beteko dira:

a) Enpresa kontratugileak bere zerbitzua emanen du herritarraren eskubidea, bi hizkuntza ofizialetan kasu egin izatearena, errespetatuta.

b) Enpresa esleipen hartzaileak euskaraz eta gaztelaniaz prestatuko ditu erabilera publikoko inprimaki, idazki eta jakinarazpenak, euskarari lehentasuna emanda (elebitasun normalizatzailea).

c) Irurtzungo Udalaren kontratu baten esleipen hartzaile diren entitate edo pertsona fisikoek euskara erabili beharko dute kontratuaren xedeko jarduerari lotutako esku-hartze publikoetan.

58. artikulua. Esleipenaren xedea herri lan bat denean, seinale, adierazpide eta ohar publikoek bi hizkuntza ofizialetan egon beharko dute (elebitasun normalizatzailea).



Irurtzongo Udala **Ayuntamiento de Irurtzun**

59. artikulua. Kontratuaren xedea aholkularitza edo laguntza tekniko bat eskuratzea bada, entitate esleipen hartzaileak bi hizkuntza ofizialetan aurkeztu beharko du bere lana, baldintza teknikoen agirian besterik espres adierazi izan ezik. Irurtzongo Udala ez da inoiz horrelako kontratuen ondorioz sortutako idazkien itzulpenaren kargu egingen.

60. artikulua. Aurreko puntuetan aipatu hizkuntza neurriak nahitaez jaso eta zehaztuko dira klausula administratibo partikularretan eta baldintza teknikoetan.

61. artikulua. Irurtzongo Udalak sinatzen dituen kontratuak euskaraz eta gaztelaniaz prestatuko dira.

XVI. KAPITULUA

TOPONIMIA

62. artikulua. Herriko toponimo xehe ofizialak finkatzea Udalaren Osoko Bilkurari dagokio, eta kale, plaza, eraikin eta hiriko gainerako elementuei izena emateko erabiltzen ahal ditu, baita era guztietako entitateei ere. Horretarako, oinarritzko irizpide hau hartuko da normalizaziorako: euskarazko toponimoak, hau da, euskaraz erabilitakoak, edozein izanik haien jatorria, euskal grafian idatziko dira beti, eta erromantzekoak, edo euskal toponimoak ez diren bestelakoak, gaztelaniaren grafian. Betiere, Euskaltzaindia, gaian eskumen goren baitu, izanen da Udalaren organo aholku-emailea.

63. artikulua. Eremu publikoko seinale guztietan lehentasuna izanen du euskarazko testuak; betiere, ulergarritasuna bermatuta eta nazioarteko arauak errespetatuta.

XVII. KAPITULUA

EUSKARAREN SUSTAPENA

64. artikulua. Irurtzongo Udalak, Sakanako Mankomunitatearekin batean, euskara gizartearen eremu guztietan ezagutu eta erabiltzeko jarduketa programak prestatuko ditu urtero.

65. artikulua. Kontuan hartuta euskara ez, baizik gaztelania edo beste hizkuntzaren bat ama-hizkuntza duten haurrentzat bizitzaren lehen urteek



Irurtzungo Udala **Ayuntamiento de Irurtzun**

garrantzi handia dutela euskaraz zailtasunik gabe ikasteko, zerbitzuak euskaraz eskainiko dituen haur eskola bat udalerrian izatea bermatuko du Udalak.

66. artikulua. Eskolatzeko adinetik hurbil dauden haurren gurasoengana joko du Udalak, euskaraz ikastearen alderdi onuragarrien berri emateko.

67. artikulua. Udalak jarduera berariazkoak egingen ditu euskalduntzeko bermerik gehien eskaintzen duen hizkuntza eredua pixkanaka zabaldu dadin Irurtzungo unibertsitatez kanpoko hezkuntzan: D eredua, alegia. Orobat, Udalak jarduera osagarriak bultzatuko ditu giroa euskalduntzeko eskolan eta eskolatik kanpo. Hori guztia, guztiz errespetatuta haurren gurasoek hautatzen duten hizkuntza eredua eta ikastetxeekin batera lanean.

68. artikulua. Irurtzungo Udalaren ludotekan, gurasoek edo tutoreek libreki hautatuko dute hizkuntza eredua beren seme-alabentzat.

69. artikulua. Irurtzungo Udalaren gaztelekuan jardueren %50 euskaraz izanen dira.

70. artikulua. Udalaren musika eskolan euskarazko lerro bat egonen da musika hizkuntza eta edozein musika tresna irakasteko.

71. artikulua. 3 eta 18 urte arteko haur eta gazteentzat programatzen diren kultur eta kirol jardueretatik, gutxienez %50 euskaraz eskainiko dira. Orobat, helduentzat, euskarazko kultur eta kirol jarduerak eskainiko dira. Helduentzat euskaraz programatzen diren jardueren portzentajea %25ekoa izanen da, gutxienez ere.

72. artikulua. Euskaldunek liburutegi publikoan euskaraz irakur eta idatz dezaten bultzatuko du Irurtzungo Udalak. Hortaz, 3 eta 18 urte arteko haur eta gazteentzako euskarazko liburu, CD eta DVDen eskaintza %50ekoa izanen da, gutxienez ere. Helduentzako liburu, CD, DVD eta aldizkarien portzentajea %15ekoa izanen da, gutxienez ere.

73. artikulua. Udalaren helburu nagusietako bat Irurtzunen euskaraz egiten duen jendearen kopurua handitzea eta hitz egiten dutenak alfabetizatzea izanik, eta kontuan izanda, alde batetik, Irurtzungo herritarren portzentaje handi batek oraindik euskaraz ez dakiela eta, bestetik, denek ez dutela eskola prozesua euskaraz ikasita bukatzen; orobat, euskalduntzea erantzunbehar publikoa denez gero, Irurtzungo Udalak kopuru bat jarriko du urteko aurrekontuetan, euskarazko ikastaroetan parte hartu gogo duten



Irurtzongo Udala **Ayuntamiento de Irurtzun**

udalerriko helduentzat, ordenantza honekin batean ezarritako araudiari jarraituz (ikus II. eranskina).

74. artikulua. Irurtzongo garraio publikoan egiten diren inprimaki, ohar eta jakinarazpen guztiak euskaraz eta gaztelaniaz egin daitezela bultzatuko du Udalak. Hortaz, horren aldeko neurri egokiak hartzeko eskatuko die garraio publikoen arduradunei, udalerrian gelditzen badira, nahiz eta Irurtzundik ez abiatu.

XVIII. KAPITULUA

HERRITAR EUSKALDUNAK

75. artikulua. Irurtzongo Udalak azterlan bat eginen du aldian behin herritar euskaldunen portzentajea jakiteko, udalerriko egoera soziolinguistikoa hobeki ezagutu eta kanpaina berariazkoak berme guztiekin egitearren eta, borondatezko inskripzioen bitartez, Irurtzongo euskaldunen fitxategia prestatuko du.

76. artikulua. Datu Pertsonalak Babesteko abenduaren 13ko 15/1999 Legearen 20.2 artikuluan xedatutakoari jarraituz, euskaldunen fitxategiak ezaugarri hauek izanen ditu:

a) Aurreikusitako xede eta erabilerak: Udalaren esparruan tresna bat izatea euskara kanpaina berariazkoen bidez sustatzeko.

b) Ukitutako norbanakoak eta taldeak: Irurtzongo herritarrak.

c) Datuak biltzeko prozedura: interesdunak edo bere legezko ordezkariak emanen ditu datuak, inprimaki bat beteta.

d) Fitxategiaren oinarritzko egitura eta bertan sartuko diren datu pertsonalak:

1. Identifikazio datuak:

-Izen-deiturak.

-Helbidea.

-Telefonoak.

-Helbide elektronikoa.



Irurtzungo Udala **Ayuntamiento de Irurtzun**

2. Ezaugarri pertsonalen gaineko datuak:

-Jaiotze eguna eta tokia.

-Sexua.

3. Ikasketen eta lanbideen gaineko datuak:

-Prestakuntza.

e) Datu pertsonalen lagapena: fitxategiko datuak ez zaizkio ez inori ez inolako entitateri lagako edo jakinaraziko, interesduna ez bada, eta ez da haiekin nazioarteko transferentziarik egingen.

f) Fitxategiaren ardura duen unitate organikoa: Irurtzungo Udala.

g) Zer unitatetan erabil daitezkeen sartzeko, zuzentzeko, deuseztatzeko eta kontra egiteko eskubideak: Irurtzungo Udaletxean (Foruen plaza, zk.g.; PK: 31860 (Nafarroa); telefonoa: 948 50 00 51; faxa: 948 60 04 13; e-mail: ayuntamiento@irurtzun.es.

h) Segurtasun neurriak: Irurtzungo Udalaren segurtasun agirian oinarritzko mailako datuetarako ezarritako neurriak hartuko dira.

XEDAPEN GEHIGARRIAK

Lehen xedapen gehigarria.-Udalak onesten dituen gainerako ordenantza eta xedapenek ordenantza honetan jasotako xedapenak berenganatu beharko dituzte dagokien guztian.

Bigarren xedapen gehigarria.-Udaleko organo betearazleek onetsi eta bultzatuko dituzte ordenantza hau aplikatu eta garatzeko behar diren xedapen eta jarduketak.

XEDAPEN INDARGABETZAILEA

Xedapen indargabetzaile bakarra.-Baliogabeak dira ordenantza honen maila bereko zein beheragoko erabaki guztiak, hartan xedatutakoaren aurka edo kontraesanean badaude.



Irurtzungo Udala **Ayuntamiento de Irurtzun**

AZKEN XEDAPENAK

Azken xedapenetako lehena.-Irurtzungo Udaleko Euskara Batzordeak gaitasuna izanen du jarraipena egiteko ordenantza hau betetzen ote den, baita edozein gairen gainean proposamenak egiteko ere, betetzen dela bermatzearren. Horretarako, urte bakoitzeko lehen hiruhilekoan, Euskara Zerbitzuak informazio txostena eginen du ordenantzaren betetze mailari buruz, eta kasua bada, egoki ikusten dituen neurriak proposatuko ditu, bilatzen diren helburuak zuzen gauzatzeko.

Azken xedapenetako bigarrena.-Ordenantza honek ondorio juridikoak sortuko ditu behin betiko onespeneraren erabakia, ordenantzaren testu guztiarekin batean, Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egunetik aitzina.

I. ERANSKINA

BALIO BEREKO HIZKUNTZA ESKAKIZUNAK

1. hizkuntza eskakizuna Europako Erreferentzia Marko Bateratuko B-1 mailaren parekoa da, eta honela baliokidetzen da:

a) Euskadiko Autonomia Erkidegoko eta Nafarroako Foru Komunitateko Hizkuntza Eskola Ofizialetako euskarazko hirugarren maila (ikasketa plan zaharra) gaindituta.

b) Euskadiko Autonomia Erkidegoko eta Nafarroako Foru Komunitateko Hizkuntza Eskola Ofizialek emandako tarteko maila (egungo ikasketa plana).

2. hizkuntza eskakizuna Europako Erreferentzia Marko Bateratuko B-2 mailaren parekoa da, eta honela baliokidetzen da:

a) Euskadiko Autonomia Erkidegoko eta Nafarroako Foru Komunitateko Hizkuntza Eskola Ofizialetako euskarazko laugarren maila (ikasketa plan zaharra) gaindituta

b) Euskadiko Autonomia Erkidegoko eta Nafarroako Foru Komunitateko Hizkuntza Eskola Ofizialek emandako maila aurreratuko ziurtagiria (egungo ikasketa plana).

3. hizkuntza eskakizuna Europako Erreferentzia Marko Bateratuko C-1 mailaren parekoa da, eta honela baliokidetzen da:



Irurtzungo Udala Ayuntamiento de Irurtzun

- a) Euskararen Gaitasun Agiria, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Departamentuak emana.
- b) Euskararen Gaitasun Agiria, Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Departamentuak emana.
- c) Euskaltzaindiaren D ziurtagiria.
- d) Euskadiko Autonomia Erkidegoko eta Nafarroako Foru Komunitateko Hizkuntza Eskola Ofizialek eta Madrilgo Hizkuntza Eskola Ofizial Nagusiaren gaitasun agiria edo 5. maila (antzinako ikasketa plana).
- e) Euskadiko Autonomia Erkidegoko eta Nafarroako Foru Komunitateko Hizkuntza Eskola Ofizialen gaitasun agiria (C1), jakintza maila eraginkorrekoa.

ANEXO II

LAGUNTZAK EMATEKO ARAUDIA, EUSKARAZ IKASTEKO

Araudiaren xedea.

Irurtzungo erroldan dauden pertsoneri, euskarazko ikastaroak egiten aritzeagatik, diru-laguntzak emateko baldintzak ezartzea du helburu araudi honek.

Onuradunak.

Ondoko baldintzak betetzen dituzten pertsonak baliatzen ahalko dira laguntza hauetaz:

- a) Irurtzungo udalerriko erroldan egotea, urtebeteko antzintasunaz, gutxienez ere.
- b) 16 urtetik goitikoa izatea, inskribatzeko orduan.
- c) Barnetegian egonez gero, ikastaroentzat bakarrik emanen da laguntza, eta ikaslearen kargu izanen dira ostatua eta mantenua.
- d) Gutxienez, ikastaroaren %80an parte hartu dela bermatzea, edo ikastaroa gainditzea.
- e) Euskaraz ikasteagatik, beste diru-laguntza batzuk eskatzeko aukera izanez gero, haiek eskatzea.



Irurtzongo Udala **Ayuntamiento de Irurtzun**

Laguntzen zenbatekoa.

a) Langabezian egonez gero, eskatzaileak matrikularen %60 hartuko du. Langabeziaren aldia ez bada ikastaroarekin batean gertatzen, langabezian egon den denboraren arabera diru-laguntza jasoko du.

b) Gainerako kasuek matrikularen %40 hartuko dute.

c) Deialdi honen diru-laguntzak bateragarriak dira beste entitate publiko edo pribatuek helburu berarekin emandako laguntzekin, baldin ez badago gehiegizko finantzabiderik.

d) Betiere, 300,00 euroko diru-laguntza emanen da, gehienez ere, eskaera bakoitzeko.

e) Horretarako aurrekontuan ezarritako diru kopurua ez da inoiz gaindituko.

Aurkeztu beharreko dokumentuak.

a) Eskabidea.

b) Eskatzailearen nortasun agiri nazionalaren fotokopia.

c) Ikastegiko ziurtagiria, ikastaroaren ezaugarriak ematen dituen (hasi eta bukatzeko egunak, asistentziaren gaineko datuak eta matrikularen kostua).

d) Langabezian egonez gero, langabeziko txartelaren fotokopia, behar bezala zigilatua, edo Gizarte Segurantzaren kide ez izana ziurtatzen duen dokumentua.

e) Beste entitate batzuek emandako laguntzaren zenbatekoa erakusten duen dokumentua.

Eskabideen aurkezpena.

a) Eskaerak Irurtzongo Udaletxean behar dira aurkeztu, bulegoetan edo web gunean eskuratutako inprimakia baliatuz, eskatutako dokumentazioarekin batean.

b) Ekitaldiko urriaren 1etik azaroaren 30 arte aurkezten ahal dira eskaerak; aldiz, aurreko ekitaldiko urriaren 1etik abian den ekitaldiko irailaren 30a arteko epealdiari dagokio diru-laguntza.



Irurtzongo Udala
Ayuntamiento de Irurtzun

c) Beste entitate batzuen diru-laguntza hartuz gero, espres aztertuko da diru-laguntza horren zenbatekoa jaso den edo ez.

Eskabideko akats zuzenketa.

Aurkeztutako eskaerek baldintzak betetzen ote dituzten aztertuko du Udalak. Aurkeztutako dokumentazioan akatsik bada edo dokumenturen bat falta bada, bost eguneko epea emanen zaio eskatzaileari akatsak zuzentzeko edo dokumentazioa osatzeko. Epe hori iraganik akatsak zuzendu edo falta zen dokumentazioa aurkeztu gabe, eskatzaileak eskaerari uko egin diola ulertuko da.